



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
188.zkia . 2006ko uztaila

GURE ARRAUNLARIEN HASIERA BIKAINA!



Argazkia: Xabier Sagarzazu

4-11. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Psilocybe

16-17. Euskara merkataritzara

20-21. Ricardo Barojari buruz

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Ekaineko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)




Hawaii

Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

Arraunketa Hiztegia



Arraunketa Euskal Herrian oso errotuta dagoen kirola da eta gure herrian, Hondarribian, zer esanik ez. Kirol honen garraitzaileak asko dira, egunetik egunera gehiago, bai herrian eta bai kanpoan ere.

Arraun munduan eta arraunketako kirolan erabiltzen diren hitzak ez dira beti ezagunak guztiontzat, horregatik Euskara Zerbitzuak egoki ikusi du hiztegitxo batean jasotzea. Beste aldetik, batzuetan gaztelarazko hitzak ere erabiltzen dira, euskararekin nahasirik.

Beraz, arraunzaleen esku jarri nahi da hiztegi txiki hau, arraun giroko hitzak eta herrian bertan erabiltzen diren zenbait esamolde eza gutzeko eta erabiltzeko.

Gogora dezagun Apirilaren 24an hitzarmena sinatu zutela Udala keta Arraun Elkartek euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin geroztik, elkarlanean aritu dira euskara zerbitzua eta Arraun elkartean hainbat alorretan euskararen presentzia bultzatzeko. Liburuxka hau orain arte egin den lanaren lekuko xumea da. Azken hilabete hauetan Arraun elkartearekin elkarlanari esker hiztegia sortzeko ideia eta gaitasuna izan dugu eta horregatik eskerrak luzatzen dizkiogu.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

16- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
23- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
25- MAYI MARTINEZ Alonso	943 642191
31- MAYI MARTINEZ Alonso	943 642191
6- MAYI MARTINEZ Alonso	943 642191
13- IRAOLA San Pedro, 5	943 641027
15- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068

TXANDAKO OKINDEGIAK UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

16- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
23- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
25- GARMENDIA Portuan	943 641136
31- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
6- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
13- GARMENDIA Portuan	943 641136
15- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212

Kalean Kantuz, euskal kantu zaharrak abesteko aukera paregabea

Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, Kalean Kantuz ospatu zen ekaineko azken igandean San Pedro kalean. Bigarren urte honetan lehen edizioan izan zuen arrakasta sendotu egin da, euskal kantuak abesteko aukera eskaintzen delarik bertan bildu eta pasadan igarotzen den orori.



Kalean Kantuz ekitaldia San Pedro kalean geratu zen

Kitarra baten laguntzaz, Udal Euskara Zerbitzuak euskal kantuez osatutako liburuxkak banatu zituen guztientzat,



giro ezinhobeagoa sortzen zelarik. Iñaki Maritxalar kitar joleak abestiak proposatzen zituen eta doinua eman ondoren, inguruan bildu zirenak gustora ibili ziren kantatzen. Aipatutako liburuxka hauetan Euskal Herriko probintzia guztietako kantu zahar ugari biltzen dira. Azken edizio honetan, Lurdes Zubeldia hondarribiarraren lau abesti sartu dira. Udalak ehun bat liburuxka banatu bazituen ere, kopurua eskas geratu zen.

Erdi Aroko herrien web gunea abian da

Interneten, "www.ciudadesyvillasmedievales.com" web gune berria ikusgai dago interneten. Ekainaren lehen egunean ofizialki sortu zen sare berriaren beste aurrerapausu bat da.

Gogoratuko duzuen bezala, Euskal Herria eta estatu mailako 9 herrik osatzen duten sare bat da, partaide izateko zenbait ezaugarri bete behar dituztelarik. Horien artean garrantzitsuenak Erdi Aroko aztarna esanguratsuak izatea, eta beraz, historia aldetik aberastasunak eskaintzea.



Web orrialdearen irudi bat

Ibilbide turistiko, historiko eta gastronomikoak honako bide hau jarraitzen du:

Hondarribia, Biasteri (Araba), Lizarra (Nafarroa), Sos del Rey Católico (Huesca), Almazán (Soria), Sigüenza (Guadalajara), Consuegra (Toledo), Coria (Caceres) eta Olivenzara (Badajoz).

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Erreginaren Baluartearen zaharberritze lanak hasi dira

Ekainean hasi ziren Erreginaren Baluarteko zaharberritze lanak, hamabi hilabete iraungo dutenak. Lan hauetan, galeria berri baten sarrera eta XVI. mendeko harginen aztarnak aurkitu dituzte ipar etxartean lanean ari zirela. Hondarribiko Udalak datorren udaberrian ireki nahi baititu egitura berriak.

Orain arte inguru guztia itxiera, hesitzea eta lanak abiatzeko prestaketetan aritu dira beharginak. Xabier Gezala, Hondarribiko Kultur arloko zinegotziak adierazi duenez, "bertan kale-antzoki txiki bat eraikiko da, antzezlan eta ekitalditxoak egiteko, beste xarma bateko ekitaldiak alegia". Horrez gain, noski, harresiaren zatirik kaltetuena berreskuratzeko helburua dute lan hauek. Izan ere, egun mantentzen den harresiaren zati honek jasan izan omen ditu historian zehar setio gehien.

Edonola ere, zaharberritze honen garrantzia azpimarratzeko, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako ahaldun nagusiak eman zuen asmo handiko obra hauen hasierako pistolakada, hilabete bat dela. Izan ere, 1.800.000 eurotako aurrekontuari eta urte oso bateko plangintzari aurre egiteko, Foru Aldundiak guztiaren %65a hartu du bere gain. Beste guztia, berriz, Hondarribiko Udalak martxoaren 30ean konbenio hau sinaturik eta dena ongi lotua zela, Teusa enpresa gipuzkoarrari esleitu zitzaion lanaren kudeaketa. Izan ere, enpresa hau ondasun historikoen zaharberritze, kontserbazio eta konponketa lanetan berezitua da. Halaber, 2002. urtean ISO 9.002 kalitate-ziurtagiria erdietsi zuen.



Zaharberritze lanen irudi bat

Bestalde, XVI. mendeko harginen aztarnekin jo dute. Esan bezala, Erreginaren Baluarte da harresiaren zatirik moldatuena. Eta mende hartan eraiki zenetik setioz setio, gerlaz gerla, parterik kolpatuena izan denez, behin eta berriro moldatutako egitura omen da. Azken zaharberritzea 60. hamarkadan eman zen eta Manzano Monis arkitektoaren esku burutu zen. Hori dela eta, gaur egun zati honetan harresiaren harria bera, beste tokietan baino berriagoa dela erraz ikus daiteke.

Atzerapenik gabeko lanak

Zentzu honetan, zaharberritze lan hauetan emandako aurkikuntzen arren, Miren Ayerbek koordinatutako arkeologoen taldeak ez ditu lanak atzeratuko. Izan ere, Teusa enpresak Bidasoamedia astekariari jakinarazi dioenez, "Alde Zaharra hiru zonaldetan banatua dago, eta honako honen kasuan, indusketa arkeologikoak egiterako orduan legeak ez ditu halako zaharberritze obrak geldiaraztera behartzen".

Hortaz, Hondarribiko Udalak aurreikusitako plangintzaren bidetik doa momentuz zaharberritzea prozesua. Hastapenetik hamaika hilabetetan burutzeko lanak zirela zioen Aitor Kerejetak. Beraz, Udalak espero duenaren arabera, 2007ko udaberrian publikoari irekia egonen da Erreginaren Baluarte. Bistan denez, kale-antzokiaz gain, bidexka batzuk antolatuko dituzte garaian garaiko goikaldeko larre-hurbiltzeko aukera berreskuratzeko. Hori bai, behin eremu honek gordetzen dituen altxorak desehortzi ondoren.



San Nikolaseko galeria

Bestalde, San Nikolaseko minen kontrako galeriaren zaharberritze lanak amaituberri direlarik, publikoari irekiak dira alde batetik besterako 80 metroak. Hortaz, irailaren 30era bitartean, honako ordutegietan aurkituko duzue irekia: goizeko 9:30etatik 18:30etara asteartetik larunbata bitartean. Eta Igandetan, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte. Beste ordutegietan ateak itxiko ditu.

Erreginaren Baluarte birgaitzeko lanak duela aste gutxi hasi dira.

Udala aparkaleku bat birgaitzen ari da Damarri kalean

Udalak Mariezkurrena Eraikuntzak enpresari esleitu berri dio Damarri kaleko lur zoru zabal baten birgaitzea, hain zuzen ere bertan aparkaleku bat eraiki ahal izateko. Aipatutako lurzorua Eroski supermerkatuaren aurrez aurre dago. Birgaitze lanak uztailaren hasieran hasi ziren eta aste pare batean amaitua egotea espero da.

Udal arkitektoa den Javier Pontek aipatutako lanen inguruan zera dio. "Damarri egin beharreko babes ofizialeko etxebizitzak bertan behera geratu zirenean, eta etxebizitza hauek Muliatera igarotzea erabaki zenean, Damarriko lur-zoru hau inongo erabilpenik gabe geratu zen. Hortaz, Udalak erabaki du funtzionalitate bat ematea, eta egokiena aparkaleku bat egitea dela iruditu zaigu, bertoko bizilagunek eta hurbiltzen direnek erabili dezaten. Aparkalekua egin ahal izateko uren kanalizazioa egitea ere ezinbestekoa da".

Lanak uztailaren hasieran hasi ziren eta hilabetea amaitu aurretik aparkalekua prest egongo da. Damarri eta Harresilandako bizilagunei zerbitzua ematea espero da, baita Alde Zaharrean berebela aparkatzeko zailtasunak dauzkaten ere. Alamedan dagoen aparkalekuak eskaintzen duen zerbitzua osatzera dator Damarriko hau.



Damarri kaleko aparkaleku berriko lurzorua

Seme alabak dituzten familiei laguntzak eskaintzen zaizkie



Guraso asko dira laguntza deialdi hau jasotzeko egoeran daudenak

Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak sustaturiko Erakunde arteko Plana 2001eko uztailaren 3an onartu zen. Plan hau, beste batzuen artean 176/2002 Dekretuaren bidez gauzatu zen; Plan honen asmoa jaiotza edo adopzioagatik, seme-alabak gehitzearekin gertatzen diren ez ohiko gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoa ematea da.

Dekretu honek bigarren seme edo alabaren jaiotza edo adopzioa diruz laguntzen du, edo hurrengo seme-alabena, halaber erditze edo adopzio anitza.

Eusko Jaurlaritzak, familiari laguntzeko sistema hobetzeko borondatea tinko mantenduz, Dekretu berri bat arautu eta abian jarri du, 109/2006 zk. duena, eta horren bidez 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera izaten den lehen seme edo alabaren jaiotza edo adopzioa lagunduko da diruz.

Gainera Dekretu berak bigarren seme edo alabaren, hirugarrenaren jaiotza edo adopzioarako dirulaguntzak aldatu edo handitzen ditu, halaber erditze edo adopzio anitzera.

Arrazoi hau dela eta, eta egoera honetan daudenei, gogorazi nahi diegu BAZetik pasa daitekeela (Hiritarraren arreta zerbitzua), Udaletxeko arkupean dagoena, 9,00etatik 13,30etara, edo 943111211 telefonora deitu ordutegi berean, informazio gehiago izateko eta dagokionean Eusko Jaurlaritzak ematen duen dirulaguntza eskatu eta izapidetzeko.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

'Hondar Kirolak' haur eta gazteentzat udan Hondarribiko hondartzan

Bigarren urtez jarraian, Hondarribiko Udaleko Gazteria eta Kirol arloek, prebentzio komunitario-ko zerbitzuak eta Sport Mundi elkarteak, Hondar Kirolak izeneko ekimena burutuko dute hondartzan, uztailaren 10etik abuztuaren 25era.

Astelehenetik ostiralera, 16.00tatik 20.00tara, hondartza 12 urtetik gorako gaztetxoek elkargune bihurtzea du helburu egitasmo honek. Honetarako, futbol eta hondartza-boleibol txapelketak burutuko dira bertan, beste zenbait animazio ekintzarekin batera. Guztiei, sariak banatuko zaizkie eta gainera, Sport Mundiren kide diren zenbait kirolariren bisita ere jasoko dute udan zehar. Iaz, egunero, ia 100 gaztek parte hartu zuten.

Hondar Kirolak-en parte hartzeko, euro sinboliko bat ordaindu beharko dute neska-mutilek. Diru hori, Senegalera bideratuko da, Avenir de L'Enfant izeneko elkarteak kudeatzen duen haurren etxe batentzako laguntza gisa.

Animazio programa honekin batera, prebentzio komunitario-ko arloak, aurten bederatzigarren urtez, gazteen enplegurako ekimena burutuko du udan zehar.

Zehazki, lau gaztek hondartzatik hurbil bizikletak alokatze-ko Udalak jartzen duen Txirrinda izeneko zerbitzuan lan egingo dute.

Beste hamalauak, Hondar Kirolak-en arituko dira, txapelketak antolatuta, epaile lanak egin eta gazte koadrilak parte



Ezkerretik eskuinera, Jon Etxeberria, Xabier Gezala, Maite Pelaez eta Aitor Etxaburu

hartzera animatzen.

Jon Etxeberria prebentzio arloko teknikariak, Hondar Kirolak-en helburuak laburbildu zituen: "Aisialdi osasungarria, kirol ekintzak proposatzea ingurune informalean, gazteak ekintza komunitarioetan parte hartzera bultzatzea eta elkartasuna bultzatzea, izena ematerakoan ordaintzen den euro horrekin".

Sport Mundiko Aitor Etxaburuk, "Udalak kirol eta hezkuntza ekimen hau aurrera eramateko egiten duen esfortzua" goraiatu zuen.



**BAR
ONDARRIBI**

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Elena Arbelaizek eramango du aurtengoa Kutxa

Gipuzkoan zehar arrantzaleen jaialdiak nonbait mantentzen badira hori Hondarribian da. Santiago egunez, arrantzale baten alabak urtero ehundaka urteko ohitura errepikatzen egiten du, eta ia 20 kiloko egurrezko kutxa buruan duelarik kofradiatik irteten da Parrokiara bidea. Bere aurretik, Hondarribiko Hiria Musika Banda eta arrantzale gazteak eramaten ditu, eta atzetik agintari eta arrantzale helduak joan ohi dira.



*Elena Arbelaiz Goyogana
Hernandade aurrean*

Kutxa Entrega ekitaldian, kofradiako kargudunak joaten dira, Abade Nagusia buru dutela, agiriak berritzera.

Aurtengo Kutxa eramalea Elena Arbelaiz izango da. Betidanik arrantzalea izan den familia bateko kidea, Santiago eguneko arratsaldeko seietan puntuan irtengo da Hernandade-tik, "Okendoren" doinuaren pean. Iaz Kutxa eramalea izan zen Maddi Kanpandegiren aholkuak jaso ditu Elenak eta horrek laguntzen dio.

Tradizioak dio zenbat eta bira gehiago eman, orduan eta arrantza hobeak egingo direla urtean zehar. Ez du erraza izango azken urteetako itzuli kopurua berdindu edo gainditzea. Kanpandegik 46 eman zituen eta 2004ean Maider Zabalak 67. Zorte ona!

Hondarribitik Donostiako autobus zerbitzua azkarrago doa autopistatik

Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondarribia eta Donostia autobusez elkartuko dituen zerbitzu berri bat abian jarri zuen uztailako lehen lanegunean. Orain arte eskaintzen den zerbitzua osatzera dator ekimen hau, eta berritasun nagusia, Irundik igarotzea ez da.

Autopistaz egiten du bidea eta horrek asko murrizten du ibilbidea, eta ondorioz, denbora ere bai. Hain zuzenki, ordu erdi behar ditu bi hiriak lotzeko. Astelehenetik ostialera beteko du bere funtzioa, hau da, lanegunetan.

Ordutegiak

Hondarribitik lehen autobusa goizeko 7.20tan aterako da, Miramarretik konkretuki. Bere ibilbide zuzena Gipuzkoa plaza arte burutuko du. Hurrengo autobusa 8.20etan egingo du eta hirugarrena 9.40tan. orduoro autobus bat aterako da, eta eguneko azkena 19.40etan izango da.

Alderantziz, Donostiatik lehen bidaia 7.50etan izango da, bigarrena 8.50etan, orduoro aterako, ordu bakoitzak hamar minutu betetzen dituenean (10.10, 11.10, 12.10...).

Ekimen hau froga bezala jarri da martxan datozen sei hilabeteetarako. Epea igarotzen denean, ikusiko da zein izan den erantzuna eta datu guztiak eskutan izandakoan erabakiko da aurrera segi edo bertan behera utzi.



Autobus bat hiri erditik ateratzen

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Airez Menorkara joateko hegaldia hasi dira

Hondarribiko aireportuaren azkartzeko eztabaida irekia mantentzen den bitartean, arduradunek hegaldi berriak eskaintzen ahalegintzen ari dira. Aurreko hilabeteetan, Huelva eta Malagarako linea berriak ireki ondoren, ekainaren 12an, astelehenarekin Menorkarako hegaldi berri baten aurkezpena egin zuten. Honela, Hondarribia eta Menorka arteko bidea egingo duen "charter" hegaldia 68 plaza dituen ATR hegazkinean irailaren bukaera arte egin ahal izango da, astelehenero.

Aireportuaren kudeatzaileek errentagarria bilakatzea lortzen ari dira. Izan ere, azken hilabeteetan bezeroen tasa joera gorakorrean dabil etengabe. Iragan maiatzean, adibidez, 32.289 bezero izan zituen aireportuak eta pista handituko balitz, bidaiarien eta lanpostuen kopurua ere handituko litzateke. Hori izan da, AFODESA, Hondarribiko Aireportua Sustatzeko eta Garatzeko Elkarteko presidentea den Ignacio Perezek esandakoa. Elkarteko bozeramaileek prentsaurreko bat eskaini zuten hegaldi berria aurkezteko, eta agerraldia pistaren haunditzearen aldarrikatzeko aprobetxatu zuten. Bertan Gipuzkoako Foru Aldundiak duen iritziarekin bat egin zuten: "Aireportua 300 metrotan handitzea beharrezkoa da, aireportua garapen integralaren oinarritzko elementua izaki, eskualdean duen garrantzia turistikoa zein ekonomikoa onartu, babestu eta garatzea" eskatu zieten agintariei.

Orain arte, Hondarribiko aireportuak astero 40 hegaldietako eskaintza izan du. Horietatik, 16 Madrilera doaz, 10 Bartzelonara eta Sevillara, eta azkenik Malagan beste lau. Orain Menorkarako astelehenetakoa ere gehitu behar zaio.



Aireportutik Menorkara zuzenean joan daiteke orain

Partzuergoak kultur eskaintzaren gidaliburua argitaratu du

Bidasoa-Txingudi Mugazgaindiko Partzuergoak, udako kultur jardueren gida aurkeztu zuen uztailaren 3an. Gidaliburu honek, Hondarribia, Irun eta Hendaian uztailatik abuztura bitartean aukeran izango diren 60 ekitaldi garrantzitsuenak biltzen ditu eta, bi astetan behin, eskualdeko taberna, komertzio eta eraikin publikoetan banatuko dira argitaratuko diren 10.000 aleak.

Egitarau honen aurkezpen ekitaldian, Xabier Gezala, Hondarribiko Kultur eta Turismo arloko zinegotzia, Miguel Angel Paez Irungo zinegotzia eta, Benito Zubeldia, *Gidaliburuaren 10.000 ale argitaratu Hendaiaiko hautetsi eta Besta Komiteko lehendakariak parte hartu zuten.*



Argitalpen honekin Partzuergoak eskualdeko kultur eskaintza bateratua sustatzeko helburua mantentzen du. Izan ere, kanpora begira turismo eskaintzarekin martxan duten politika amankomunarekin estuki lotua dago uda garaiko kultur eskaintza. Dena dela, gidaliburuaren xedea eskualdeko hiru herrialdeen arteko harremanak estutzea litzateke. Xabier Gezalaren arabera, "Garrantzitsua da jakitea hemen Txingudi badiaren Hondarribiko batentzat Hendaia hurbiltzea ez dela hiri handi batean bezala, kontzertu edo ekitaldi batentzako".



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Kasino Zaharrak txangoa antolatu du Galizara

Kasino Zaharrak txango bat antolatu berri du, oraingo honetan Galiza izango delarik bisitatuko den lurraldea. Irailaren 24tik urriaren 1era izango da. Irteera, goizeko 6,30etan izango da Alamedatik, Benaventen bazkaltzeko geratuko da autobusa, eta Vitchona hotelera iritsita afaria hasiko da.

Itzulera ordea urriaren 1ean izango da, gosaldutik ostean. Berriz ere bazkaria Benaventen izango da Hondarribira itzulerara amaitu aurretik.

Egunak eta ordutegia: astelehena, asteazkenak eta ostiralak, 10:30 etatik 12ak arte.

Izena ematea: uztailaren 10etik irailaren 20 arte adinekoen etxeko bulegoan, plazak bukatu arte. Pertsona bakoitzak gehienez bi izenemate egin ditzazke. NANaren fotokopia bat eta dirusatze-agiria ekartzea beharrezkoa da: Lankide Aurrezkian, **3035 0049 06 0490040083** kontu zenbakian.

Prezioa: 255,00 € bi oheko logela eta 335,00 € ohe bakarrekoa. Autobusa, egonaldia eta bazkaria prezioaren barruan daude.

Udal liburutegiak udako ordutegia hasi du

Kale Nagusian dagoen Udal Liburutegiak udako ordutegi berria hasi du. Ondorioz, astelehenetik ostiralera goizez irekiko da, 9.00etatik 14.00tara. Larunbatetan ordea, 10.00etatik 13.00etara irekiko da. Arratsaldez itxita mantenduko da. Iraileko jaiak ignoratzen direnean Zuloaga Etxea ohiko ordutegira itzuliko da.

Saharako haurrak berri dira Hondarribia Oporrak Bakean 2006 programari esker

** Zazpigarren urtez Hondarribiko Udalak 8 haur saharai hartzen ditu beste hainbat familian*



Haurrak Udaletxean alkate eta zenbait zinegotzirekin

Beste urte betez abian jarri da Oporrak Bakean programa, Hondarribiko Udalak antolatua Tadamun Elkarteak eta Euskadiko Fronte Polisarioaren laguntzarekin. Programa horri esker, Saharako zortzi neska mutilak zenbait hilabetez errefuxiatuen kanpamenduetako errealitate gordina ahazteko aukera dute; izan ere, Saharako herria erbestertua eta oso bizi-baldintza gogorretan bizi da bertan, 1975. urtetik.

Alde horretatik, programak eskaera gizatiar bati erantzuten dio, baina ez da inolaz ere ahaztu behar programa horrek elkartasuna, errebindikazioa eta gizarte-sentsibilizazioa uztartzen dituela. Izan ere, haurrak familia euskaldunetan hartzea bisita elkarreragile bihurtzen da, haurrek bizitza osoan gogoratuko dituzten oporrez gozatzen duten bitartean, familiek beste errealitate bat ezagutuko baitute parez pare; hain zuzen, Marokok ilegalki okupatu zion herrialdera itzultzeko irrikaz denbora luzean itxaroten ari den herriarena.



**inmobiliaria
gestoría
administración de fincas**

pérez alkain

Matxin de Artzu, 14
20280 Hondarribia
Tel. 943 64 21 57
Fax: 943 64 54 16
e-mail: gespeat@euskatnet.net

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 643 557

Ramona Ancisar-ek 103 urte bete ditu



Irudian, Ramona Ancisar, bere seme-alabak eta Aitor Kerejeta, alkateordea

Ramona Ancisar hondarribiarrak 103 urte bete ditu gaur. Iaz egin zen bezala, udal ordezkariak bere etxera joan dira pertsonalki zorionak ematera, Aitor Kerejeta lehen alkateordea bertan izan da, Txendunea Azpi baserrian, Ramona Ancisari zorionak emateko egun berezi honetan.

Ancisarrek bost seme-alaba ditu. Irudian ikus daitezke horietako hiru: Pedro, Dionisio eta Milagros.

Duela urte batzuk Udalak ehun urte edo gehiago betetzen dituzten hondarribiarrak nolabait omentzeko erabakia hartu zuen. Orduz geroztik, udal ordezkari bat etxera joaten zaio omenduari zorionak ematera. Urte askoz!

Karmen Eguna ospatu da berriz ere

Arrantzaleek egun haundia ospatu zuten uztailaren 16an, Karmengo Amabirjinaren egunean. Aspaldian Hondarribian (eta kostaldeko herri askotan) ospatzen zen eguna dugu. Gero, zenbait urtez ez zen ezer antolatu, eta duela bospasei urte Portuarraken Asoziazioa elkarteari esker, ohitura zaharra berreskuratu egin zen.

Arratsaldeko seiretan hasi zen ekitaldia Portuko elizan, lau arrantzaile jubilatu Amabirjinaren irudia sorbalden gainean eraman zutelarik. Ondoren, irudia Ardoran ontzian sartu zen, lore koro bat eta Kofradiako bandera hurbil zituelarik. Ontzian, Damaso Uranga apaizaz gain, Borja Jauregi alkatea eta Aitor Kerejeta alkateordea zeuden, baita hainbat arrantzale, ekitaldiaren antolatzaile eta ikusle ugari ere.

Behin itsasora atera ondoren, inguruan hainbat itsasontziren laguntzarekin, Gure Aita errezatu zen, eta apaizaren bedeinkazioa entzun ondoren, Guadalupeko Salbea abestu zen, lorezko koroia uretara jaurti zelarik, itsasoan hil ziren arrantzaleen oroimenez.

Eguraldi bikaina eta itsasontzi ugariaren tutuen laguntzaz itzuli zen Amabirjina, prozesioan elizara bueltatuz.



Karmengo Amabirjina itsasontzira eramatean

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

ANJEL ETXEBESTE

Psilocybe musika elkarte



Psilocybe izena bitxi askoa irudituko zaio bati baino gehiagori, baina Hondarribiko musikagintzan ezaguna da izen honen azpian gordetzen den musika elkarte. Izan ere, dagoeneko 13 urte iragan dira sortu zenetik eta egun talde mordoxka biltzen ditu hain ibilbide oparoa egin ondoren. Elkartearen ordezkari den Anjel Etxebesterekin izan gara hizketan eta halaxe mintzatu zaigu elkartearen kontuez.

Zein da Psilocybe izenaren esanahia? Nolatan hain izen berezia?

Elkartearen izena Jaizkibeleko mongi edo perretxikoen jatorrizko izenetik hartua dago. Perretxiko hauen izen tekniko edo zientifikoa Psilocybe semilanceata da eta hortik hartu genuen izena.

Nolatan sortu zen elkarte?

Gure helburua entseatzeko lokala lortzea zen. Hasiera batean talde batzuk ?Lif taldekook esaterako? Hendaian hasi ginen, eta gainerakoak ahal zuten moduan moldatzen ziren. Taldeok lokalak behar genituen eta azkenean, denok elkartu eta udalari eskaera bateratua egin genion; harrezkero, Amutalden egiten ditugu entseguak. Horretaz gain, Psilocybe osatzen dugun taldeen artean ezaugarri komunak badira eta zenbait gauza antolatzen ditugu, baina hasiera bateko helburua entseatzeko eta lokal publiko bat lortzea zen.

Zenbat taldek osatzen dute Psilocybe?

Guztira 10-15 talde gara, nahiz eta batzuek bes-

teek baino ekintza gehiago antolatu. Batzuek entseguak bakarrik egiten dituzte, beste batzuek kontzertuak ematen dituzte, pare batek diska ere aurki kaleratuko dute... Gehienak rock taldeak gara, baina elkarren artean ez dugu antz handirik, jendeak kanpotik parekoak garelako dioen arren. Musikalki jende desberdina gara.

Nola zaudete antolatuak hainbeste talde izanda? Gure artean bilerak egiten ditugu eta udalera normalean lagun bakarra joaten da, baina lana denon artean banatzen saiatzen gara. Gainera, datorren urteko obra dela-eta hobeto antolatu eta banatu gara.

Aipatu duzun obra hori udalak iaztik esku artean duen kontzertuak emateko lokalaren proiektuarena da. Musikariak gain arkitektoa den Psilocybeko kide bat ari da proiektua idazten. Nola dago kontu hori?

Proiektua Xanti Noain ari da idazten, nahiko aurreratua dago eta lanak uda pasa ondoren has daitezke. Obra bukatzeko 6 hilabeteko epea



Ainara Elizondo

dago eta nik uste apirila alderako dena amaituta egongo dela, baina epe ziurrik ez dago aurreratzerik badaezpada.

Zein dira jasotzen dituzuen laguntzak?

Obra hau egiteko laguntzaz gain, ia urtero abuztu aldean antolatzen dugun kontzerturako ere laguntza jasotzen dugu udalaren eskutik.

Eta beharrak?

Gure behar nagusia kontzertuak egiteko lekua lortzea da. Horrek kezkatzen gaitu gehien, eta horrekin batera abesti onak egiteak.

Hondarribia omen da musika talde gehien dituen Gipuzkoako txokoetariko bat. Zer diozu horri buruz?

Psilocybe sortu zenean Underribi Sound izeneko diskoa kaleratu eta komunikabide askok Hondarribia goratu zuten, eta horrek agian jendearen arreta osoa Hondarribian zentratu eta beste txoko batzuk ilundu zituen. Beharbada, beste lekuetan ere arreta jartzen ez dugulako gerta daiteke hori.

Psilocyberen 13 urteko ibilbide honetan ze azpimarratuko zenuke?

Batetik esperientzia eta bestetik jarraipena. Aurten



Udalak 360.000 euroko laguntza eman dio Psilocybe elkarteari lokala birgaitu eta haunditu ahal izateko

talde berri pare bat sartu da eta aurrekoan ere beste talde bat sartu zen elkartearen. Horretaz gain, jende gaztea ere bada gure artean.

Musika elkartegintzaren erreferentzi bihurtu da Psilocybe eta ea orain arte bezain osasuntsu jarraitzen duen gerora ere Hondarribiko musikagintzaren mesedetan.

BAR - RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



*Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.*



GESTIÓN:

**CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS**

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

“Konjuroak eta bedeinkazioak”



Martin Iturbe

Elizar erabiltzen dituen ekintza ugarien artean, “konjuroia” da, ekaitzak uxatzeko erabiltzen den otoitza. Aurrekoan horri buruz zerbait aipatzen nuen.

Une honetan, San Juan-jaiaren ingurua gaudenez gero, eskura zaizkigun edo / eta antziñan izan genituen ohitura batzuri begirada labur bat luztauko diet.

Urtean zehar egunik luzeena eta gauldirik laburrena zaizkigun egunetan ospatzen da San Joan jaia. Jai honen inguruan, suak, urak eta landareak esan-nahi aberatza hartzen dute. Udako “Eguzki itzulia” ekainaren 21.ean gertatzeak, begirabide ugarikoia eskeintzen du edozein herrialdeko kulturaren bizkarretik.

Gaurko nere aipamena, bedeinkazioei dagokiena da, batipat landarekiei dagokionaren alorrean.

Pentsabideari hasiera emateko esango dut, San Joan egunean, hain zuzen ere, gure baserrietako ate eta leihoetan, lizar-abarra eta elorri-abarra jartzen zirela. *(jartzen zirela diot, izan ere, “jartzen direla” esatea zail egiten zait, gure baserrietatik ezkutatu bait da iadanik ohitura bitxi hau).*

Dena den, gure arbasoes irizpideetan oso itsasia zegoen, bi landareki horiek etxeari eta etxekoi “jainkoen” babesa zekarkietela.

Horrekin batera, gure elizaten, landare, lore eta barazki guztien bedeinkazioa izaten zen.

“Bedeinakzio”-hitza aipatzeak beroren mamia nondik dijoan adieratzera narama. Hitza bera, latinezko hitza da: “benedikazioa” = “ongi esatea”. Jainkoak ongi ikusten duela eta “ongi hitzegiten” duela adierazten du bedeinkazioak.

Garai batean edozer gauza bedeinkatzen zen, eta, “sineskeriaren” kutsua hartzera ere iritsi zen zenbaitetan.

Bedeinkazioak duen mamia hontan dago, hitz gutxitan esanda: “Jainkoaren izenean bedeinkazioa ematera ausartzen geranok, hitz ematen dugula, gauza hure bere erabilbide zuzen eta jatorrean erabiliko dugula”.

Guzti hau esan ondoren, hona gaurko nere mezea: “pertsona edo gauza, edozein edo edozer bedeinkatzek eskatzera datorrenai eskaiñe eta emango diot, zuhait jakin bat ezik. “Lizarra ez dut bedeinkatuko”.

Izan ere, euskaldunoi, lehen euskalgizonaren erlijio-pentsamoldeak agertzen dizkigute zuhaitzek. Zuhaitza simbolo da: “ona-txarra”; “bizitza-heriotza”; “ar-eme”...

Horrela badira zuhaitzak euskaldunek maitasun bereiziz maitatuak: “haritza, pagoa, artea”... Badira zuhaitz sakratuak eta onurakorrak direnak: “elorria”.

Bada zuhaitz madarikatua: “Zuhandorra” (corbejo) (nik ez dut ezagutzen zuhaitz hau) eta bada bnberez bedeinkatua den zuhaitza: “Lizarra”.

Gauza hauen ezaugarri bezala, hor ditugu gureganaiño iritsi diren aspaldiko ohitura batzuk: “baserri atarian lizarra landatzea tximistak kalterik egin ez dezaion; edo elorri nahiz lizar egurrez eginiko gurutzeak ate eta leihoetan jartzea.

Beraz, egunen batean, lizar-arbola bedeinkatzeko eskatzera bazatoz nigana, nik ez dizut bedeinkatuko lizarra, lizarra berez bedeinkatua bait da. Eta hau onartzea ez da siniskeria, “nondik natorren jakitea, eta berez ona danari onaren balikoa ematea, baizik.

San Nikolas Baluarteko Kontraminen Galeria ikusgai dago


Ekainaren amaieran ireki zen ofizialki Kontraminen Galeria, San Nikolas baluartearen azpitik igarotzen dena. Ekitaldian, beste zenbaiten artean, Aitor Kerejeta alkateordea eta Miren Ayerbe udal arkeologoa izan ziren.

Kontraminen Galeria, XVI. mendean jadanik erabiltzen zena, 62 metroko luzera daukan tunel bat da, zabaleran 2 metro eta altueran 3 metro dauzka, eta San Nikolas baluarte bere beheko ibilbidean burutzen du.

Lan sakona

Galeria honetara egindako lehen bisita batean ikusi ahal izan zen bere barnean era guztietako zaborrak zeudela. 5 metro ibili ondoren aspaldian egindako elurte bati aurre egiteko gatz kantitate ugari gordetzen zela ikusi zen. Gatz kopuru honek galerian aurrera egitea ekiditen zuen, oztopo batean bilakatzen baitzen.

Lanean aurrera egiteko erabili den erizpidea, zaborren garbiketa kontrol arkeologiko baten bidez egitea da, baita prospekzio bat burutzea ere San Nikolas baluarte goiko zonaldearekin loturarik bazen edo ez jakiteko. Galeriaran barneko aldea oso txikia dela kontuan izanda, lana eskuekin egin behar izan zen, tresneria mekanikoa kanpoan geratu behar izan zelarik.



Tunelak 62 metroko luzera dauka.

Galeria barnean zeuden zaborrak atera ondoren, ganga edo bobeda ez garbitzea erabaki zen, oso egoera onean aurkitzen baitzen. Egin diren lanak, beraz, zaborra garbitu eta ondoren galeria argiztatzea izan dira. Galeria babestu ahal izateko, burdin forjatuzko bi ate jarri dira, bakoitzak bere giltza daukalarik.

Baluartearen historia

San Nikolas baluarte, ondoan daukan Erreginarenekin batera, Hondarribian 1530 urtetik aurrera Erret Boronda-



XVI. mendeko galeria bat da, benetan ikusteko modukoa.

tea jarraituz hasi zen Errenazimendu garaiko fortifikazioaren elementurik garrantzitsuenetako bat da. Gipuzkoako Kapitan Orokorra zen Sancho Martínez de Leyvaren agindupean, Lope de Isturizaga harginak eta Pedro del Peso Artilleriako kontadoreak burutu zutelarik. Bere trazen egileak ez dira ezagutzen baina Gabriel Tadino di Martingo-ren inguruan kokatu izan dira. Benedito de Rávena eta Pedro de Guevararen ildoaren inguruan ere kokatu dira, biak Hondarribian zeuden eta 1533an. Hala ere, 1539an Francisco de Holandaren margo ederra lekuko dugu, bertan San Nicolás baluarte amaitu berria agertzen da eta.

San Nikolas baluarte zenbait faktore agertzen dira ondare, historia eta turismo aldetik oso erakargarria egiten dutena. Alde batetik, baluartedun eraikuntza bat da, bere haserako irudia mantentzen duena. Oso eraldaketa gutxi jasan ditu eta bere irudi originala mantentzen du. Zentzu honetan bere birgaitzeak datu interesgarriak eskainiko dizkigu.

Proiektu haundi bat

Proiektuaren lehen urratsak duela bi urte eman ziren. 2004. urtean Udaletxeak lehen mugimenduak hasi zituen, "San Nicolás baluarte kontraminen galeria birgaitu, sendotu eta hedatzeko proiektua" bultzatu zuelarik.

Horretarako lehiaketa ireki bat deitu zuen eta Trabajos Especiales ZUT, S.A. enpresari esleitu zitzaion 70.888 euroren truke.

Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu zitzaion erakunde honek ondarea babesteko daukan dirulaguntzen barnean sartu ahal izateko. Foru Aldundiak Udalarai 36.000 euroko laguntza eman zion obra ekiteko.

Proiektuarekin batera gainera, beste proiektu arkeologiko bat egin behar izan zen, egungo legediari jarraiki (7/1990 legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondarea, 1990ko abuztuaren 6ko Boletinean agertzen denentz), Hondarribiko Alde Zaharra monumento eta gune babestu bezala agertzen baita.

"Euskara Hondarribiko Merka

Siadeco enpresak Hondarribiko Udalarentzat egin duen ikerketaren emaitzak ezagutzen dira. "Euskara Hondarribiko Merkataritzara" izeneko egitasmoa burutu da lau garren aldiz 2006. urte honetan. Herriko establezimenduetan euskararen erabilera sustatzea du helburu, eta merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzuetako establezimenduak bisitatu dira datuak lortu ahal izateko.

Datu bilketaren aurkezpena burutu zen Udaletxeko Areto Nagusian. Bertan izan ziren Kattalin Noblia Euskarako Zinegotzia eta Juanjo Allur Siadeco enpresaren ordezkaria. Nobliak esan zuenez, "2006ko otsailean herriko 267 establezimenduak bisitatu ziren. Horietatik inkesta erantzun dutenak 227 dira, 40k ez dutelarik erantzunik eman".

Aurtengo ikerketan 3 hizkuntza aztertu dira: euskara, gaztelania eta frantsesa, mugaren hurbiltasuna kontuan hartuz.

Hondarribiko merkataria eta hostalarien artean euskaraz dakitenen kopuruak gora egin du 2002tik hona. Zehazki, 2002. urtean, merkatarien %55,2 euskaldunak zen eta %18,5 ia euskalduna. Aurtengo datuek diotenez, euskaldunen kopurua puntu bat igo da, %56,2raino, eta ia euskaldunak %27,5 dira orain.

Zehazki, Siadecoko Juanjo Allurrek atzo azaldu zuenez, "Hondarribiko merkatarien %39,9k telefono harrera euskaraz egiten du, %35,2k ahozko harremanetan erabiltzen du euskara bezeroekin eta %23,3k hizkuntza hau langileen artean erabiltzen du".

Idatzizkoei dagokienez, "%33,9k euskarazko errokulazioa dauka eta %36,6k publizitatea euskaraz egiten du. Barne kudeaketa eta inprimakietan, alegia, nomina eta ordainagiritan % 9,1 da euskara erabiltzen duena" Allurrek adierazi duenez.



Udalak zerbitzuak eskaintza zabala du merkataria eta ostalarien esku euskararen erabilera sustatzeko: itzulpenak, kartelak, ordainagiriak, arlokako hiztegiak, euskara ikastaro bereziak, errotxuloa aldatzeko diru laguntzak eta hizkuntza aholkularitza pertsonalizatua.

Hiriko establezimenduen ia erdiak 112k zerbitzu eskaintza hori erabili egin du, guztira, arlo desberdinen artean, 198 eskaera egin zituzten iaz.

Euskararen presentzia nabarmena da Hondarribiko establezimenduetan, eta espazio honi haunditzeko nahia erakutsi zuten bertaratu ziren merkatariek. Ezagupen mailak gora egin badu ere, badirudi hobetzeko asmoa erakusten dutela. Komertzio harremanetan Euskararen erabilera elementu baikorra eta errentagarria bihurtzen dela konturatzen da sektorea, orokorrean.



Juanjo Allur Siadeco-ko ordezkaria eta Kattalin Noblia Euskarako zinegotzia.


taritzara" kanpainaren datuak

Euskararen ezagupen-maila merkataritza eta ostalaritzako pertsonalaren artean


	2006. urtea				2002. urtea			
	GUZTIRA	Txikizkako Merkataritza	Ostalaritza	Beste zerbitzuak	GUZTIRA	Txikizkako merkataritza	Ostalaritza	Beste zerbitzuak
Euskaldunak	56.2	58.9	54.0	54.8	55.2	60.2	48.4	75.0
la euskaldunak	27.7	29.4	25.1	32.1	18.5	22.9	16.0	12.5
Erdaldunak	16.1	11.7	20.9	13.1	26.3	17.0	35.6	12.5

Iturria: SIADECO, 2002, 2006.

Hizkuntza desberdinen erabilera-maila ahozko harreman eta komunikazioan



Establezimenduetako euskarri eta komunikazioetan erabilitako hizkuntza



“Nere Sukaldetxoan” Lurdes Zubeldiaren liburua aurkeztu zen ekitaldi hunkigarri batean

Lurdes Zubeldia 83 urteko hondarribiarraren olerki, abesti eta idatziak biltzen dituen **Nere sukaldetxoan** liburua aurkeztu zen ekainaren 28an jendez gainezka zegoen Udaletxeko Areto Nagusian. Lurdesen familia guztiak, lau seme-alabek, suhi-errainek eta bilobek, hainbat eta hainbat lagunekin batera, omenaldi beroa eskaini zioten.

Ekitaldiari hasiera Xarmanta abesbatza eman zion. Emakumez osatutako talde honen kide baita Zubeldia eta

Lurdesen abestiak kantatzen ohi dute.

Ondoren, Kattalin Noblia Euskara zinegotziak eta Xabier Gezala Kultura buruak hitza hartu zuten. “Lurdes Zubeldia pertsona aparta eta emakume nekaezin da, idazle eta olerkari trebea, abertzale eta eus-

kaltzalea, baina beste ezerren gaineratik, eskuzabala eta umila”, esan zuen Kattalin Nobliak.

Xabier Gezalak aldiz, Nere sukaldetxoan lanean bildutakoek “amona-ren goxotasuna” daukatela esan zuen eta “hondarribitarrek Lurdesengandik asko ikasteko” daukatela azpimarratu zuen.

Hunkituta zegoen Lurdes Zubeldia, familiari, etorritako lagun guztiei eta Udalari, liburu hau argitaratzeagatik, eskerrak eman zizkion. Bere lanen bilduma honi buruz esan zuen “gizon-

emakumeen bizitza bezalakoa” dela. “Bere olerki, idatzi eta abestietan Hondarribia maiz aipatzen da, ez herri panpoxa delako bakarrik, pertsonaren galdera sakonenetara ino iristeko ahalmena duen txikitasuna eta handitasuna aldi berean biltzen dituen herria delako” baizik.



Ekitaldiaren erdian, Lurdesen familiak abesti hunkigarri bat eskaini zion

Aldizkari honek Lurdes Zubeldiari zorionak ematen dizkio, bai bere lanen bilduma horren kaleratzeagatik, oraingo eta gure ondorengo belaunaldien mesederako dena, eta baita ere urteetan erbestetik eta hurbiletik

entregatu zituen idazlanengatik. Urte askotan Lurdes Zubeldiak bidali zizkigun hainbat lan aldizkarirako gai ugariei buruz, eta Udalarekin elkarlan horren lekuko geratzen zaizkigu liburu honetan. Mila esker Lurdes.

Arraun Elkarteak itxaropentsu TKE San Miguel liga hasi berritan

Hasi berria da TKE-San Miguel liga. Udako hilabeteak kolorez betetzen dituzten banderak gainean ditugu. Gure aldetik, Hondarribia Arraun Elkarteak denboraldi berri honetarako dituen asmoak jakin izan nahi dugu. Hona hemen Mikel Orbañanos entrenatzaileak esandakoak gaiari buruz.

Hasiera bikaina izan du taldeak.

Ez genuen uste hain hasiera ona izango genuenik. Lehen lau banderatik hiru irabazi eta bestean bigarrena. Inork etzuen espero. Lana ongi egiten ari gara.

Zein izango da zuen helburua?

Badakigu iazko maila ematea zaila dela, baina gu hori egiten saiatuko gara. Denek faboritotzat gauzkate, baina nik uste talde asko daudela hor gurekin batera. Denboraldi polita dugu aurrean, ia jendeak disfrutatzerik daukan ere.

Orain bi urte hirugarren, iaz bigarren... Aurten Liga irabaziko al duzue?

Ea horrela den. Azken bi hiru urteetan behetik gora egin dugu, urtetik urtera trainerua azkarra go joan da, eta saiatuko gara maila hori mantentzen.

Zeintzuk osatzen dute zure faboritoen zerrenda?

Arraunlariak ikusirik, Orio, Pedreña, Castro eta Urdaibai esango nituzke, baina gero uretan asmatzea ez da erraza izaten. Arkote ere ez dabil makal, Zarautz ere oso ongi hasi da.



Mikel Orbañanos,
lehen traineruaren
entrenatzailea

Banku higikorrean garaile arraunlariak Sevillan



Arraun Elkarteko banku higikorreko kirolariak egindako denboraldia azpimarragarria izan da. Asko izan dira garaipenak eta postu bikainak lortu dituzten kirolariak. Horien artean, 4x kategorian Espainiako txapeldun suertatu diren **Uxue Zabala, Irene Litago, Iraia Ortiz eta Itxaso Zelaieta** dira. Zorionak!

Arraun Elkarteak bazkide kopurua haunditu nahi du

Hondarribia Arraun Elkarteak aurtengo denboraldiaren amaieran 1.100 bazkide izatera iritsi nahi du. Hori dela eta, jendea erakartzeko kanpainari ekingo diote datozen asteetan.

Komukabideei igorritako agiri batetan, arraun elkarteak dauzkaten gastu handiei aurre egiteko ahalik eta bazkide gehien behar dituela dio. Momentu honetan 950 pertsonak ematen diote Hondarribia Arraun urtean 30 euroko kuota eta 150 gehiago nahi dituzte. Elkarretik herritar guztiei dei egin diete bazkide egin daitezen. Horretarako, nahikoa da ostiralean San Pedro kalean irekitako dendara joan edo Molla ibilbidean dauden instalazioetan fitxa betetzea.

Bestalde, aurten ere, etxeko balkoietan bandera berdeak jar-tzen dituzten arraunzaleen artean saria zozkatuko du Hondarribia Arraun Elkarteak.

Parte hartu nahi dutenek, 943 644368 telefono zenbakira deitu eta izen-abizenak, helbidea eta telefonoa utzi behar dituzte, bi lagunentzako astebeteko Lanzaroterako bidaiaren zozketan parte hartzeko.



eukeni
optika

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

Focus
DAILIES™

Ikusmen egokitzeko
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
betaurrekoak
nire lentillak
Focus DAILIES



CIBA
Vision

Ricardo Baroja eta tximistak gordetzeko dorrearen historia



Koldo Ortega

Ez da fantasiatzeko historia bat, ez eta ipuin bat ere. Ricardo Baroja zenak (1871-1953) Hondarribian, Higereko lurmuturrean dorre bat eraiki nahi izan zuen XX. mendeko 20 eta 30. hamarkadetan zehar. Dorre haren funtzioa, inguruan erortzen ziren tximistak jasotzea izango zen. Udal Artxibategian gordeta daude eskaerak eta baimenak, baita Foru Aldundiaren iritzia ere. Historia xeble bezain polita, hona hemen xehetasun nagusienak. Bide batez, ez dugu ahaztu bere anaia Pio hil zela aurten 50 urte betetzen direla, eta ekintza ugari antolatu direla bere omenez.

Ricardo, Pio Barojaren anaia

Margolari, grabatzaile eta idazlea. Minas de Río Tinton 1871an jaioa eta Beran zena 1953an. Serafinen semea eta Píoren anaia, hau baino urtebete zaharragoa. Osasun arazoak zirela eta, ingeniari utzi behar izan zuen eta artxibozain ikasketak egin zituen; Teruelen eta Caceresen egin zuen lan.



Politikaz arduratuta, 1931n errepublikaren aldeko mitin batetik etxera zihoala begi bat galdu zuen automobil istripu batean. Margolaritzaren alorrean, 1885etik 1936ra zaletasun handiz aritu zen, 1937-1952 bitartean zaletasuna bizibide bilakatu zitzaizolarik. Idazle gisa, kazetaritza, antzertia, eleberrigintza eta

saiakera alorretan aritu zen: El cometa, antzerkia, (1915); Fernanda (1920); El pedigree (1926); La nao capitana (1935); Gente del 98 (1952).

Grabatuaren eremuan garrantzi handiko lanak egin zituen: akuaforte, litografía eta heliograbatuetan ehundik gora lan. Espainian hainbat sari irabazi zituen. 1927an Madrilgo Arte Grafikoetako Eskolako irakasle izendatu zuten eta Asociación de Artistas Grabadores delakoa haren inguruan sortu zen.

Dorre bat eraikitzeko asmoa

1921ko irailaren 3ko udal batzarrak jasotzen du Ricardo Barojak egindako eskaria. Orduko alkatea Daniel Martínez Agirre zen, eta batzarraren 4. puntuan jorratu zen gaia. Laburki, honela dio: "(...) doy lectura a la siguiente instancia de don Ricardo Baroja, vecino de Bera de Bidasoa, deseando construir un edificio de pequeñas dimensiones en el extremo del cabo Higuer, en el terreno comprendido entre el Faro y la orilla del mar frente a la isla 'Amuco' (Amuitz), y solicita del Ayuntamiento le sea cedida en arriendo una parcela de mil metros cuadrados (...) y ofrece pagar ciento cincuenta pesetas anuales adelantados". Udal batzarrak ahobetez onartu zuen mila metro karratuko azalerako lurra alokatzea Barojari.

Jarraian, irailaren 29an Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalari jakinarazten dio alokairu-kontratuak udal zein foru aldundiko legedia jarraitu behar duela.

"El coleccionista de relámpagos" narrazioa

Aipatutako asmo hau 1938an Beran sinatutako 'El



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean


Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

coleccionista de relámpagos' narrazioan. Madrilen 1967an argitaratutako "Obras selectas" lanaren barnean aurki daiteke. Irakurtzeko oso erreza eta barre egiteko aukera ona da.

Testuan zehar zehazten du nolakoa izango den dorrea. "(...) y en un rincón del Norte, que ya tengo visto y estudiado, construiré mi torre, fuerte como una casa-mata a prueba de bomba, y me pasaré la vida pescando, fumando y resistiendo los terribles temporales que desata el equinoccio. (...) La torre soñada es un prisma de cemento con tres ventanas largas, apaísadas, en los cuatro frentes".

Barojak Jaizkibel mendian (Higereko lurmuturraren ondoan) eraiki nahi zuen dorrea. Horretarako tximistoz bat jarri nahi zuen eta gero tximista jasotzean, eraikinean gorde eta bertan argazkiak atera, gero azterketak egiteko.

Dena den, denborak aurrera egin zuen eta azkenean eraikina ez zen egitate bihurtu. Ez dago behintzat Udal Artxibategian gaiari buruzko informazio gehigarrik, eta badirudi Ricardo Baroja margolari eta idazlearen burutazioetako bat besterik ez zen izan. Batek baina gehiago idatzi izan du Barojak ez zeuzkala burua bere tokian. Hala ere, ezagutu ez genuenez ezin ezer esan!



Barojak tximistak jasotzeko dorre bat eraiki nahi izan zuen Higer inguruan

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

TRUCK
diskoteka
foru kalea, 13

ARRANDEGIA
ITSAS ALDE

C/ Markos Deunaren Enparantza, 7
Puntala Auzoa
20280 **HONDARRIBIA**
Tel.mobila: 609 414145

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK LARUNBATERA 8-15
TELEFONOA: 943 64 08 88

Baratza komunitarioa

Martxotik aurrera "BARATZA KOMUNITARIOA" proiektuan parte-hartzeko aukerari buruz informazioa ematen ari gaitzaizkizue. Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak, boluntario batzuen laguntzarekin aurrera daraman boluntariotza proiektu bat dugu honako hau.

Ilusio handiz lehenengo uztaz biltzen hasi gara eta Kale Nagusiko "EGIN-EGON TOKI"-n salduko dira ondoren produktu hauek. Jasotako dirua Senegaleko solidaritate proiektu batera bidaliko da (Avenir de l'Enfant izeneko elkarteak kudeatzen duen kaleko haurren etxe batera) laguntza gisa.



Baratza komunitarioaren irudi bat

Hondarribiko edozein biztanlek proiektu honetan boluntario gisa parte hartzeko aukera izango duela gogoratu nahi dizuegu.

Era berean, seme-alabarik izanez gero, baratzeke lanetan zuekin batera parte hartzeko aukera izango dute parte hartze, elkartasun, hazkuntza, ikasketa eta familia giro gune baita.

**Animatu zaitetzte!
Zuen zain gaude.**

BARATZA-tik ateratzen ari diren produktu ekologikoak kale Nagusian erosteko aukera duzue, astear-te eta ostegunetan goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00etara.

Hondar-Kirolak: kirol ekintzak Hondarribiko hondartzan



Uztailaren 10ean hasiz zen Hondar-kirolak

gazte kirol animatzaileen laguntzarekin, aste beteko Futbol eta Bolei txapelketak burutuko dira, eta beste ekintza osagarri batzuk ere bai.

Lekua : Hondarribiko hondartza
Noiz: 2006.eko uztaila eta abuztuan
Ordutegia: 16:00etatik 20:00etara

Bigarren urtez jarraian, Hondarribiko Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak, udal gazteria eta kirol arloaren lankidetzarekin eta SportMundi Elkartearekin hainbat kirol ekintza antolatu ditu aurtengo udako.

Hondartzako udal instalazioetan eta

Izen-ematearen prezioa pertsona bakoitzeko € batekoa izango da eta Jasotako dirua Senegaleko solidaritate proiektu batera bidaliko da (Avenir de l'Enfant izeneko elkarteak kudeatzen duen kaleko haurren etxe batera) laguntza gisa.

Lekua:

Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzua
Gazte Informazio Bulegoa

INFORMA ZAITEZ!

www.prebentzio .com

Maiatzetik aurrera Prebentzio Komunitarioko udal zerbitzuko web orria martxan dago.

Gure proiektuen berri aldizka emango dizuegu. Agendan, ekintzen informazioa topatuko duzue eta prebentzioari buruzko gaurkotasan-gaien inguruko informazioa eta iritziak ere zuen eskura jarriko ditugu.

Zuen partaidetza beharrezkoa dugu, iradokizunak, iritziak edo eskaerak egin lasai asko, zuen zain gaude.

bar-restaurant
arrantzaleen
kofradia

tel. 943 64 42 12
paseo ramón iribarren s/n - nueva lonja-
20280 hondarribia (gipuzkoa)

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Udalak ordutegi berria proposatzen du ostalaritzarako

Hondarribiko terrazek Udalak jarri duen ordutegi berria izango dute. Honen bidez, erabiltzaileek udaz disfrutatzeko terrazak tabernak dituen ordutegi berbera izango dute.

Udal arduradunek Gipuzkoako eta beste tokiko herrialdeetan jarrita dauden sistema aztertu ondoren, udako aktibitate honi erregimen hau eman nahi diete, beti ere bizilagunen ongizatea errespetatuz.

Horrela, Udalaren erabakiak bi posibilitate eskaintzen die ostalaritzako enpresei. Beraiek daukaten ezaugarriaren menpean bat edo bestea hartuko dute.

Alde batetik, erregimen orokorra ezartzen da. Honen eraginez terrazak lanegunetan gaueko hamabitan itxi behar dute eta jaiegunetan hamabi t'erdietan. Hala ere,

Udalak egin duen berrikuntzak ordutegi oparoago bat aukeratzeko posibilitatea eskaintzen du, horrela kanpoko jarduera hauek ostalaritzako establezimenduari jartzen dioten ordutegi muga izango dute.

Erregimen hau erabilti nahi duten taberna edo jatetxeek aukera hau posible egiteko musika kendu egin beharko dute lanegunetan gauerdiko hamabietan eta jaiegunetan hamabi t'erdietan. Horrela bere etxeetan dauden herritarrek lo egiteko aukera izango dute.

Udal arduradunen esanetan formula interesgarria da, beste udalerrietan emaitza positiboak izan duena eta Hondarribiko ezaugarri turistikoek sektore honetako empresari mota honetako aukerak jartzea errazten du.



San Pedro kaleko
terraza baten irudia

OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeintan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituen. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



CORSARIOS

Ingalaterrako piratak eta kortsarioak eza-gunak dira mundu osoan. Baina askok ez du jakingo Euskal Herrian, eta baita Donostian bertan ere, piratak eta kortsarioak izan direla. Haien bizipenak eta biografiak bildu ditu Jose Antonio Azpiazu historialariak Nuevas historias de corsarios vascos. Biografías y vivencias liburuan. Ttartalo argitaletxeak argitaratu du liburua. Piratena bizimodua zela nabarmendu zuen Azpiazuk eta haien historia modu atseginean aurkeztu nahi izan duela argitaratu berri den liburuaren bidez.



VREDAMAN

Aurreko bere bi liburu arrakastatsuen ondoren (Sprako tranbia eta Van't Hoffen ilea), nobela berri batekin dator Unai Elorriaga (Algorta, 1973): Vredaman. Aita ospitalean gaixo eta ama hura zaintzen dauzkalako osaba-izekoen etxera bidaltzen duten haurra; golf-klub baten barruan errugbi-zelai klandestino bat margotu nahi duten bi lagun; urtetan arkitekto baten andregai izan baina inoiz ezkondu ez zen emakume adindua; aiti-te gizon inportantea zela jakin eta haren arrastoaren atzetik dabilen gaztea. Elkarrekin nahasten diren hainbat istorio daude liburu honetan, pertsonaia ameslari, xelebre edo maitagarri beteak, bakoitza bere estilo eta hizkera berezian kontatua: haurraren sinpletasun magikoa, atso-agureen berritsukeria patxadatsua, alprojen elkarriketa zoroak...



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudimenez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzeko gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarelak, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiaurretik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidagarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagartzazu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**

Eguzkirako babesa

Eguzkirako krema bere kalitatea handitzeko goxotasunez eginak izan dira. Eguzkiaren kontra protekzio handia ematen digute

Udan gaude eta honekin eguzkiaren aurrean denbora gehiago egoten gara. Komenigarria da garai honetan eguzkiarengatik gure azala babestea. Horregatik, eguzkirako krema erabiltzea oso garrantzitsua da. Hauekin, gure azala ez da bakarrik babestuta egongo eta gure brontzeatuak gehiago iraun dezake.

Txuntxumelak mota honetako krema bat aurkezten egoera dago, hain ezaguna den, aloe vera egina dagoena:

Bere propietateek jatorri ekologikoa dute, ez da anima-

lietan proba eginda eta ez dute zerikusirik, glizerina, tensio aktibo edo petrolioetatik datorkion materialekin.

Bitamina naturalak dauzkate, A, C, eta E. Hauek gure azalari behar dituen nutrienteak ematen dizkiote kondizio egoki batean egoteko.

Produktu hauek osagarri natural ugari dituzte. Horrela azalaren brontzeatu gogortzen eta luzatzeko gaitasuna daukate, azalaren mantxak eta zahartzaroa eragozten dutelarik.

Txuntxumela dendara etortzera gonbidatzen zaituztegu gure dermokoestetika natural produktu guztiak ikus ditzazuen.



Ofertas Esquaintzak

BENETAZKO ALOE VERA

.Eguzkirako babesa 25 faktorea = 29,50 €

.Eguzkirako babesa 15 faktorea = 23,85 €

.Eguzkirako babesa 8 faktorea = 18,30 €

.After Sun lozioa = 15,90 €

.99,9% antioxidante gela = 13,25 € edo

2 +1 dohainik

.Arreta pertsonala

ZER BERRI ONGI ETORRI BIDEO KLUBEAN



DVD

SYRIANA

Guztiok badakigu petrolioak zer suposatzen duen. Dirua, et ahorren inguruan, interes desberdin ugari. Honekin batera beti agertzen da korruptzioa, eta Houston zein Washington-en sortzen diran trama eta negozio ilunak. Hauek dira Ekialde Hurbilean mugitzen den guztia kontrolatzen dutenak. Gai honetan, politikari, negoziatzaile, terrorista ugari daude sartuak, ikusteko moduko película. Gaur egungo errealtatetik oso hurrun ez dabilena gainera.



DVD

APOSTANDO AL LIMITE

Futboleko aritzen den Brandon Lang-ek bere kirola utzi beharko du jasandako lesio gogor baten ondorioz. Berriz ere ospea edukitzea da bere helburua eta kirol apustueta sartuko da. Mundu benetan iluna, gainontzekoaren diruarekin aritzeak arriskuak ekartzen ditu. Kopuru haundiak irabaziko ditu baina orduan agertuko dira tentsioa eta lapurketak. Bere inguruko jendearen konfidantzak aterako dute Lang tunel beltz hortatik.



DVD

SECRETOS DE FAMILIA

Little Wallop herri txikiko apaiza dugu Walter. Igan-deko sermoiak prestatzen hainbat denbora ematen du eta ez da ohartu bere emaztea golf-eko irakaslearen liatu egin dela, Lance izenekoa. Ez da ohartu ere bere alabak astero nobioa aldatzen duela, ez eta bere semea jipoitu egiten dutela eskolan. Etxea garbitzeko kontratatuko duten emakume batekin aldatu egingo da gaia. Arratsalde bat farrez igarotzeko aukera bikaina.



DVD

ZATHURA

Zientzia fikziozko abentura interesgarri baten aurrean gaude. Beraien artean oso erlazio kaxkarra duten bi anai bapatean etxean joku bat aurkituko dute, espaziora bidaliko disuena. Orduan hasiko da nobedade eta abentura ugariz jositako istorio bat, zientzia fikziozko pelikulen jarraitzaileentzat zuzendua gehienbat.



DVD

EL DETONADOR

Ciado agente sekretu baten istorioa da, Sonny izenekoa. Poloniara bidaia bat egingo du armekin trafikatzeko duen pertsonaia bat atxilotzeko. Badirudi pertsona honek arma nuklear bat saldu nahi duela. Sonny nor den jakiten dutenean, atxilotua izango da, baina denbora gutxira berriz ere kanpora aterako da, eta orduan hasiko da bere benetak funtzioa betetzen, horretarako oztopo ugari gainditu beharko dituelarik.



DVD

TRISTAN & ISOLDA

Erromatar inperioraren gainbeheraren ondoren, Marke-k hainbat tribu ingeles batzen saiatuko da Irlandako errege gaiztoari aurre egiteko. Gauzak erabat aldatuko dira Tristan, Marke-re zainatzaile nagusietako bat, Isoldarekin (irlandar emakume lirain bat) maitemintzen denean. Gerra bat ekarriko du erromatar honek. Benetan ikusteko moduko filme bat da.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

Argazkien errebelatzea: Argazkilaritzako materialeak
 -Eskaintza 13x18
 -Eskaintza 2x1
 -Errebelatu zure argazkiak CD formatoan jasotzea

CASIO Erloju eta iratzargailuak
 Zilarra: eraztunak, belarritakoak, kate, pultsea, piercing...
 Bitxiak: urrez txapatuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA



Zer egin dezaket udan?

LEHIAKETA

GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO II. ARGAZKI LEHIAKETA

Antolatzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarte
Edukia: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik (1948) hautatutako 25. Artikulua.
Teknika: Paper monokromoa edo koloreko papera.
Neurriak: Gutxienez 18 x 24 cm.
 Gehienez 30x40 cm.
Epea: Azaroak 9
Informazioa: 943112323/ 943421386
www.gipuzkoa.net edo **www.sfg-ss.com**

DIRULAGUNTZA

IRUNGO HISTORIARI BURUZKO "SERAPIO MUGICA" IKERKUNTZARAKO BEKA

Antolatzailea: Irungo Udala.
Baldintzak: Irungo historia ezagutzeko edo bere iturri historikoak berreskuratzeko lagungarri gerta litezkeen jatorrizko eta argitaratu gabeko ikerkuntza proiektuak egingo dituzten ikerlariak.
Edukia: Irungo Historiari Buruzko 2006ko "Serapio Mugika" ikerkuntzarako beka.
Epea: Irailak 12.
Informazioa: Irungo Udala. 943649200
www.irun.org

UDARAKO ORDUTEGIA

Gazte Informazio Bulegoa, **Uztaila eta Abuztuan, goizez** irekitzen da:

Astelehenetik Ostiralera: 10:00etatik 13:30etara
Larunbatak: 10:00etatik 13:00etara.

ONDARTZ EDERRA

ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

LA HUERTA DEL PAIS

Fruitu eta barazkiak
freskoak eta
kalitatezkoak

www.lahuertadelpais.es

Nola deitzen zaio etxe honi



Heldu gara berriz ere irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Lehiaketan parte hartzen duen jende kopurua ikusita, irakurri eta parte hartzen duen jende asko dagoela ikusi dugu, eta guztiek gainera erantzun egokia ematen dutela ere. Martxoko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote.

Azken alean egin genizuen galderari irakurle gehienek egoki erantzun dute. Hainbeste alditan Guadalupera igotzeko erabli dugun bide hori Kalbarioa da, hala deitzen zaio behintzat Hondarribian.

Oraingo honetan eraikin hau gaur egun zer den galdetzen dizuegu. Jakin badakigu aspaldidanik hutsik dagoela, orain dela ez asko suak hartu zuela ere. Duela zenbait urte funtzio konkretu bat zuen eta orduz geroztik izen hori geratu zaio. Erantzuna izandakoan, bidali Udal Euskara Batzordera abuztuak 17 aurretik.

Azken aleko galdera erantzun dutenen artean bat hautatu behar, eta zozketaren irabazlea **Alaitz Arestin Duinat** izan da. Berari dagokio beraz bi pertsonentzako afaroa Beko Errota jatetxean.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Erota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Javier Ugarte plaza duela 70 urte



Berriro ere Hondarribiko Udaleko Udal Artxibategira jo dugu bertan dauden altxor ikaragarriak irteera bat emateko asmotan. Oraingo honetan apur bat aldatzea erabaki dugu, eta Hondarribia 800 urteurren ospakizunetan Euskadiko Kutxak argitaratu zuen 'Hondarribia Iruditan' liburura jo dugu. Bertan 163. orrialdean argazki eder hau aurkitu dugu.

Javier Ugarteren jardinarekin aintzineko irudia dugu. Bere haseran argazkian ikus dezakegun tanke-ra hau zeukan, eta aldamenen gaur egun Ama Guadalupekoa ikastetxea agertzen bada ere, orduan 'Mirentxu' kasinoa ikus zitekeen.

Etxean horrelako altxorak dituen irakurleak, eta gure aldiakarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Hondarribiko Udaleko Udal Euskara Batzordera bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Hiqer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Ekaina2006

JAIOTZAK

4an: ENEKO Labaien Tife, Hondarribiko Mikel eta Donostiako Mertxeren semea.

8an: JUNE Rekalde Arruabarrena, Errenteriako Angel Maria eta Donostiako Oihanaren alaba.

12an: SAIOA Iriarte Lekuona, Irungo Jon eta Hondarribiko Ana Mariaren alaba.

15an: LIER Garcia Larreta, Irungo Luis Maria eta Hondarribiko Ixoneren alaba.

15ean: IKER Larretxea Arbelaiz, Hondarribiko Asier eta Hondarribiko Nerearen semea.

17an: AMETS Zuazu Miguez, Irungo Haritz eta Errenteriako Leireren alaba.

18an: URTZI Irisarri Amunarriz, Irungo Ricardo eta Hondarribiko Lauraren semea.

21ean: LANDER Torres Karrikiri, Pasaiaiko Xanti eta Donostiako Ainhoaren semea.

22an: ENEKO Corvo Mitogo, Irungo Jose Fermin eta Asok-eko (Ekuatore Ginea) Marta Malionaren semea.

25ean: AINHOA Pousada Posselt, Kaufbeuren-go (Alemania) Antonio eta Kaufbeuren-go (Alemania) Martinaren alaba.

30an: MIKEL Llorente Bertiz, Hondarribiko Iñigo eta Irungo Elizabeth Victoriaren semea.

EZKONTZAK

3an: JAVIER LUIS Barbero Garcia, Irungoa, eta **MARIA NAGORE Manterola Corvo**, Irungoa.

3an: ALFONSO Penas Sanchez, Irungoa, eta **NURIA MARIA Bobadilla Herrero**, Irungoa.

10an: PATXI Igerategi Zeberio, Lezokoa, eta **ITZIAR Iglesias Etxeberria**, Irungoa.

17an: JORGE Perez Manuel, Donostiakoa, eta **AMAIA Urzelaieta Bengoetxea**, Hondarribiakoa.

24an: INDALECIO Prieto Rodriguez, Ourensekoa, eta **ANA ISABEL Martinez Rodriguez**, Hondarribiakoa.

24an: AITOR Lopetegi Enjuto, Irungoa, eta **MIREN GURUTZE Isasa Beltran**, Donostiakoa.

24an: JOSE RAMON Alegre Alonso, Donostiakoa, eta **MARIA JOSE Arozena Elorza**, Irungoa.

HERIOTZAK

2an: ANTONIA Elzo Sarasola, Punta Arenas-koa (Txile), 82 urte, Zuloaga kalean.

4an: MARIAN Muruaga Loroño, Bermekoa, 54 urte, Gabriel Aresti kalean.

4an: ENRIQUE Romero Agea, Pedro Abad-ekoa (Kordoba), 88 urte, Eguzkilore kalean.

10an: MARIA LOURDES Sagarzazu Arruabarrena, Hondarribiakoa, 52 urte, Mendelun.

12an: JAVIER Karrera Olaskoaga, Hondarribiakoa, 85 urte, Iparkalean

13an: FRANCISCO Sagarzazu Enrique, Hondarribiakoa, 78 urte, Ama Guadalupekoa kalean.

17an: GABRIELA Zendoia Azpeitia, Donostiakoa, 91 urte, Bidasoa kalean.

21ean: JOSEFA Erdozia Garmendia, Hernanikoa, 101 urte, San Gabriel egoitzan.

21ean: FRANCISCA Maioz Malkorra, Oresakoa, 52 urte, Baserritar Etorbidean.

21ean: JOSE Eceiza Iñarra, Hondarribiakoa, 77 urte, Etxenagusia kalean.

22an: JOSE SANTIAGO Gonzalez Fernandez, La Bañezakoa (Leon), 55 urte, Kostan.

28an: LEANDRO Ormazabal Olaizola, Hondarribiakoa, 92 urte, Arrantzale Auzoan.

EKAINAKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

<i>Tenperaturarik gorena:</i>	37,0° C, hilaren 9an.
<i>Tenperaturarik beherena:</i>	9,4° C, hilaren 1ean.
<i>Bataz besteko tenperatura:</i>	20,1° C.
<i>Bataz besteko hezetasuna:</i>	% 71
<i>Euri-litroen kopurua:</i>	123,0 litro.
<i>Egunik euritsuena:</i>	hilaren 16an 38,8 litro.
<i>Euri indartsuenen unea:</i>	hilaren 16ko 19,10etan, 78,6 litro.
<i>Egun euritsuak:</i>	12 egun.
<i>Elur egunak:</i>	0 egun
<i>Kazkabar egunak:</i>	0 egun
<i>Ekaitz egunak:</i>	6 egun
<i>Behe-laino egunak:</i>	0 egun
<i>Ihintz egunak:</i>	7 egun
<i>Haizea >50 Km/ord.</i>	0 egun
<i>Eguzki kopurua:</i>	207,9 ordu
<i>Bataz besteko presioa:</i>	1018,0 milibar
<i>Presiorik gorena:</i>	1027,5 milibar, hilaren 2an
<i>Presiorik beherena:</i>	1009,2 milibar, hilaren 9an
<i>Haizerik indartsuena:</i>	hilaren 10eko 10,55tan, 46 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN EKAINAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 1.964 kilo.
 Hegaluzea (*Thunnus thynnus*): 298.706 kilo.
 Hegalaburra (*Thunnus alalunga*): 334.161 kilo.
 Antxoa (*Engraulis encrasicolus*): 285 kilo.
 Makarela (*Scomber japonicus*): 3.323 kilo.
 Boga (*Boops boops*): 1.313 kilo.
 Korrokoi (*Chelon Labrosus*): 431 kilo.
 Muxar handia (*Diplodus sargus*): 2.318 kilo.
 Erla (*Lithognathus mormyrus*): 914 kilo.
 Sabia (*Sarpa salpa*): 1.158 kilo.
 Zarakuntza: 2.570 kilo.
 Bestelakoak: 684 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK EKAINAN

Altak: Jaiotzak: 11, eta kanpotik etorriak: 72
Bajak: Hildakoak: 12, eta herritik joanak: 63
Biztanle kopuru orokorra: 16.309 bizilagun.

EKAINAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 344 euskaraz, 1074 gaztelaniaz eta 16 bestelakoak. Guztira: 1434 liburu.
Ekarri diren liburu berriak: 144 euskaraz, 77 gaztelaniaz eta 14 bestelakoak. Guztira: 235 liburu.
Bazkide berriak: 10 gizon eta 8 emakume. Horietatik 12 heldu eta 6 haur. Guztira 18.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak: *Euskeraz:* HOOD, Susan.-Udaberrian beldar udan tximeleta.- Ttartalo.
Gaztelaniaz: TAKAYA, Natsuki.-Fruits Baskets.- Norma.

Helduak: *Euskeraz:* ARANBURU, Xabier.-Hondarribia: Hirian barrena. - Udala
Gaztelaniaz: BROWN, Dan.- La Conspiración.-Umbriel.

Joski.

. LENTZERIA ARROPA
 . HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
 20280 HONDARRIBIA



307 — FONTARABIE (Espagne) - Douaniers, Sergent de ville au poste de la Marine



H. Lafon, éditeur, Bayonne

